



DEIALDIA, BI IZANGAI-ZERREDA –BAT PRESTAKUNTZARAKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO– HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, SISTEMA INFORMATIKOAREN ARDURADUNAREN LANPOSTUAN ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Giza Baliabideetako zuzendariak honako deialdi hau onetsi du 2026ko abuztuaren 28an:

1. DEIALDIA, IZANGAI-ZERREDA BAT OSATZEKO, SISTEMA INFORMATIKOAREN ARDURADUNAREN LANPOSTUAN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN ARITZE ALDERA

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.-Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da izangai-zerrenda bat hautaproben bitartez osatzeko, **SISTEMA INFORMATIKOAREN ARDURADUNAREN** lanpostua, A mailakoa, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetze aldera, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, deialdiko plazen maila berekoak edo beheragokoak, eta eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia agorturik ez edukitzea.
- b) Lanpostuan benetan zerbitzua ematen gutxienez hiru urte eman izana.
- c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
- d) Gradua Informatika Ingeniaritzan, Telekomunikazio Ingeniaritzan, Informazio Sistemen Ingeniaritzan, edo titulazio baliokidea edukitzea, edo hura erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo titulua eskatzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

2.2. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1 apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.



2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntza-aldian ere.

Hirugarrena.-Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunetan xedatutakoarekin bat egingen da.

Laugarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko izendapena honako hauean ezarritakoarekin bat egingen dira: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako erabakian berariaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela beste zerrenda honen aldean: aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrenda.



2. DEIALDIA, IZANGAI-ZERREDA BAT OSATZEKO, SISTEMA INFORMATIKOAREN ARDURADUNAREN LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.-Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da, izangaien zerrenda bat hautaproben bidez osatzeko, SISTEMA INFORMATIKOAREN ARDURADUNAREN lanpostuan, A mailakoan, aritzeko, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa.

Halaber, parte hartzen ahalko dute Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetakoz nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere, baldin eta zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, haien ondorengoek eta ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaingitua ez izatea.

c) Gradua Informatika Ingeniaritzan, Telekomunikazio Ingeniaritzan, Informazio Sistemen Ingeniaritzan, edo titulazio baliokidea edukitzea, edo hura erdiesteko maneran egotea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo titulua eskatzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaiturik edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.

f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.



2.2. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute 2.1 apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunetan xedatutakoarekin bat egingen da.

Laugarrena.- Aldi baterako kontratazioetarako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egingen da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo indarreko legeekin bat behar bezala konpultsatutako edo autentifikatutako kopia aurkeztuta.

Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men egingen zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan hamar plazatik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere kasuan kasuko hautaprobak gainditu badituzte eta haien egoera frogatzen badute.

BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK

Lehena. Eskabideak

1.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan parte hartzeko eskabideak hogeiei egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdien testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

1.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

1.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espediente formalizatzeagatik ordaindu beharreko tasa 13 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskabidea formalizatzeko unean, ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

1.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.4.1. Eskabidea online aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatutako titulazioen kopia.

Nahi duenak, eskabidea aurkezteko unean, kudeatzaileari baimena ematen ahalko dio titulua Hezkuntza Ministerioaren Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuan kontsultatzeko, baina aukera horrek ez du beti bermatzen egiaztatuko denik. Hori gertatzen baldin bada eta izangaia ez badu titulazioaren kopiarik aurkezten, onartuen zerrendatik kanpo geratuko da.

Atzerrian eskuratutako tituluen kasuan, dagokien baliozkotzea edo, bestela, horren homologazio-egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

1.4.2. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta baliorik gabe geldituko dira haiek gauzatutako egintza guztiak, deusetan galarazi gabe parte hartzeko eskabidean faltsukeria egiteagatik legokiekeen erantzukizuna.

1.4.3. Desgaitasuna aitortua duten izangaiek desgaitasun maila onartzen duen ebazpena –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten.

Aski izanen da agirien kopia soilak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

Bigarrena. Izangaia onestea. Behin-behineko zerrendak eta behin betikoak.

2.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

2.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzean adierazten den izapiderearen bidez.

2.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatutik eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko.

Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Baztertutako izangairik ez badago, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da, lehen hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

2.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

2.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legezkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Hirugarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

3.1. Hautapen-prozesua 2027ko urtarrilean hasiko da eta bi proba izanen ditu, egun berean egiten ahalko direnak, epaimahaiaren irizpidearen arabera.

3.3.1. Lehen proba.

Ariketa teorikoa izanen da. Izangaiek test erako 30 galdera ebatzi beharko dituzte, ebazpen honen I. eranskineko gaitegian zehazten diren gaiei buruz.

Proba egiteko gehieneko denbora ordubetekoa izanen da.

Proban gehienez ere 30 puntu eskuratzen ahalko dira. Bazterturik geldituko dira gutxienez 15 puntu lortzen ez dituzten izangaia.

3.3.2. Bigarren proba:

Ariketa praktikoa izanen da. Izangaiek kasu praktikoko batzuk ebatzi beharko dituzte, oinarri hauetako I. eranskineko gaitegiko zati espezifikoan jasotzen diren gaiei buruz.

Proba egiteko gehieneko denbora hiru ordu izanen da.

Proba epaimahaiak emanen dituen ordenagailuetan egingen da. Proba egin bitartean, ez da onartuko beste testu edo dokumentaziorik kontsultatzea, ez eta kalkulagailurik edo bestelako materialik erabiltzea ere. Mahai gainean bolaluma eta orri zuriak bakarrik edukitzen ahalko dira.

Proban gehienez ere 50 puntu eskuratzen ahalko dira. Bazterturik geldituko dira gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten izangaia.

Proba horretan plika-sistema erabiliko da.

3.2. Proba bakoitzaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak www.pamplona.es/eu webgunean, deialdiaren laburpenean, argitaratuko ditu izangaiek erdietsitako puntuazioak, eta bost egun balioduneko epea emanen du interesdunek eskubidez komeni zaien guztia alega dezaten, telematikoki.



3.3. Probarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiak nortasun agiri nazionala, AIZa, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela agertuko dira. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

3.4. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoan aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

Laugarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

4.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: José Francisco Iraizoz Aguerri, Iruñeko Udaleko zuzendari kudeatzailea.

Epaimahaiburu ordezkaria: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaikidea: Rubén Armañanzas Arnedillo, Datuen Zientziaren eta Adimen Artifizialaren Institutuko (DATAI) ikertzailea.

Epaimahaikide ordezkaria: Darian Horacio Grass Boada, Datuen Zientziaren eta Adimen Artifizialaren Institutuko (DATAI) ikertzailea.

Epaimahaikidea: Ezequiel María Romanín, Datuen Zientziaren eta Adimen Artifizialaren Institutuko (DATAI) aplikazioen eta sistemen kudeatzailea.

Epaimahaikide ordezkaria: José González Gomáriz, Datuen Zientziaren eta Adimen Artifizialaren Institutuko (DATAI) ikertzailea.

Epaimahaikidea: Marina Jiménez Díez, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkaria: Koldo Muñoz Cortés, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

Epaimahaikide-idazkari ordezkaria: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

4.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoei, kontuan harturik ordezkari izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezkari gisara izendatutakoak, bigarren ordezkari egitea beharrezkoa izanez gero.

4.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arazoak suertatzen badira.

Izangaiak, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.



4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

4.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek laguntza emanen diote epaimahaiari, betiere beraien espezialitate teknikoei bakarrik helduta.

Bosgarrena. Gaingitu dutenen zerrenda.

5.1. Behin proben kalifikazioa amaituta, epaimahaiak Udalaren webgunean argitaratuko ditu, bereizirik, honako zerrenda hauek:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gaingitu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.
- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gaingitu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

5.2. Izangaiek guztira erdiesten dituzten puntuetan gertatzen ahal diren berdinketak epaimahai kalifikatzaileak ebatziko ditu irizpide hauekin bat:

- a) Prestakuntzarako izangaien deialdia: berdinketak ebazteko zozketa egingen da, Giza Baliabideetako Alorrean.
- b) Aldi baterako kontratazio-deialdia: berdinketak ebazteko zozketa egingen da, Giza Baliabideetako Alorrean.

5.3. Izangai-zerrendak izangaiak deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat egingen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Seigarrena. Izangai-zerrendak eta dei egitea.

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

Ebazpen honek onesten dituen deialdien oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehentasuna edukiko dutela aldi baterako kontratazioetarako izangaien aurretik.

Momentu horretan eskatzen ahalko zaizkie deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo indarreko legeekin bat behar bezala konpultsatutako edo autentifikatutako kopiak.

Zazpigarrena. Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.



Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsio hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertzeiko errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsioak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2026ko abuztuaren 28an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.

I. ERANSKINA

Gaitegi orokorra

1. gaia: Genero-berdintasuna: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako. Atariko titulua. I. titulua: Berdintasun-printzipioa eta diskriminazioaren kontrako babesa. II. titulua: Berdintasunerako politika publikoak. Printzipio orokorrak. V. titulua: Berdintasun-printzipioa enplegu publikoan (I., II. eta III. kapituluak).
2. gaia: Iruñeko Udalaren Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia (ETKAE 2030).

Gaitegi espezifikoa

3. gaia: TOKI ARAUBIDEA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA PROZEDURA ELEKTRONIKOA

Udalaren antolaketa eta eskumenak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen inguruko oinarritzko erreferentziak. Udaleko IKT zerbitzuen antolaketa. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoaren bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena. Administrazio prozedura elektronikoa. Espediente eta agiri elektronikoa. Erregistroak eta jakinarazpen elektronikoak. Administrazio-jarduketa automatizatua. Artxibo elektronikoa. Udaleko zerbitzu digitalak. Herritarrekiko harreman elektronikoa.

4. gaia: IDENTITATE DIGITALA, SINADURA ELEKTRONIKOA, ELKARRERAGINGARRITASUNA ETA IRISGARRITASUNA

910/2014 (EB) Erregelamendua, uztailaren 23koa, identifikazio elektronikoari eta barneko merkatuetako transakzioetarako konfiantza-zerbitzuei buruzkoa (eIDAS), eta 2024/1183 (EB) Erregelamendua, apirilaren 11koa, 910/2014 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, identitate digitalaren Europako esparrua (eIDAS2) ezartzeari dagokionez. Ziurtagiri elektronikoak. Sinadura elektronikoa. CI@ve sistemak. Identitate digital korporatiboa. 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena. Elkarreragingarritasunerako arau teknikoak. DIR3, SIR eta InSide. Agiri eta espediente elkarreragingarriak. Elkarreragingarritasun semantikoa eta teknikoa. Irisgarritasun digitala. 1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, Sektore publikoko webguneen zein gailu mugikorrerako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa. Zerbitzu digitalen diseinu unibertsala.

5. gaia: DATUEN BABESA, SEGURTASUNA ETA JARRAITUTASUNA

2016/679 (EB) Erregelamendua, apirilaren 27koa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeari (DPBEDBLO) buruzkoa. Tratamenduaren

arduraduna eta eragilea. Datuen babeserako ordezkaria. Eragina ebaluatzea. Segurtasun-arrakalak. Segurtasun Eskema Nazionala, maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak arautua. Arriskuen kudeaketa. MAGERIT. Negozioaren jarraitutasuna. Hondamendien aurrean berreskuratzea. Gorabeheren kudeaketa. Cloud-eko segurtasuna. Kanpora ateratako zerbitzuen segurtasuna.

6. gaia: IKTen KONTRATAZIO PUBLIKOA ETA HORNITZAILEAK KUDEATZEA

IKTen kontratazio publikoa, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari eta, hala dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari jarraikiz. IKT kontratuak. SaaS eta cloud. Plegu teknikoak idaztea. Zerbitzu-mailako akordioak (SLA) eta zerbitzu-metrikak. Itzulgarritasuna. Jabetza intelektuala eta datuen jabetza. Kontratuak gainbegiratzea. Hornitzaileak kudeatzea. Erosketa publiko berritzailea. Mendekotasun teknologikoaren arriskuak. Kontrol ekonomikoa eta teknikoa.

7. gaia: SISTEMEN ARKITEKTURAK, SAREAK ETA CLOUD-a

Arkitektura monolitikoak eta mikrozerbitzuak. Ekitaldietara bideratutako arkitekturak. APIak eta middlewarea. Sare korporatiboak. Segmentazioa eta segurtasuna. Birtualizazioa. Edukiontzia. Cloud publikoa, pribatua eta hibridoa. IAM. Behagarritasuna. Eskalagarritasuna. Eskuragarritasun handia. Erresilientzia.

8. gaia: DATUAK INTEGRATZEA, ETL (ERAUZTEA, ERALDATZEA ETA KARGATZEA) ETA DATUEN GOBERNANTZA

ETL (ERAUZTEA, ERALDATZEA ETA KARGATZEA) eta ELT (ERAUZTEA KARGATZEA ETA ERALDATZEA). APIen bidezko integrazioa. Batch eta streaming prozesamendua. Datuen kalitatea. Metadatuak. Leinua. Datuen katalogoa. Datuen bulegoa. Datuen gobernantza. Datu nagusiak. Datu irekiak. Informazio publikoa berrerabiltzea.

9. gaia: ZIBERSEGURTASUN TEKNIKO ETA OPERAZIO SEGURUA

Hardeninga. Zaurgarritasunak. Adabakien kudeaketa. SIEM. EDR/XDR. Sareko segurtasuna. APIen segurtasuna. Zero Trust. Identitateen kudeaketa. Monitorizazioa. Gorabeheren kudeaketa. Berreskuratzea eta erresilientzia.

10. gaia: PROIEKTUEN KUDEAKETA, IKT ZERBITZUAK ETA ADIMEN ARTIFIZIALA

IKT proiektuen zuzendaritza. Agile. Scrum. Kanban. ITIL. Aldaketaren kudeaketa. Zerbitzuen katalogoa. SLA (zerbitzu-mailako akordioak). AA sortzailea. LLM (Hizkuntza-eredu handiak). RAG (Berreskurapenak aberastutako sorkuntza). 2024/1689 (EB) Erregelamendua, ekainaren 13koa, Adimen artifizialaren arloko arau harmonizatuak ezartzen dituen (AI Act). Gobernantza algoritmikoa.

11. gaia: UDALEKO ESTRATEGIA DIGITALA

Udaleko IKT estrategia. Heldutasun digitalari buruzko diagnostikoa. Roadmap teknologikoak. Ekimenak lehenestea. Urte anitzeko plangintza. Adierazle estrategikoak. Antolamenduaren eraldaketa. Teknologiaren balio publikoa. Berrikuntza gobernatzea.

12. gaia: IKT GOBERNUA ETA ERABAKI-EREDUAK

IKT gobernu korporatiboa. Rolak eta ardurak. Teknologia-batzordeak. IKT arriskuen kudeaketa. COBIT. Reporting exekutiboa. Eskariaren kudeaketa. Lehenespen teknologikoa. Proiektuen jarraipena.

13. gaia: UDALAREN ENPRESA-ARKITEKTURA

Enpresa-arkitektura. Negozio-arkitektura. Aplikazioen arkitektura. Datu-arkitektura. Arkitektura teknologikoa. Integrazio korporatiboa. Aplikazioen mapa. Elkarrengarritasuna. Xede-arkitektura. Arrazionalizazio teknologikoa.

14. gaia: SISTEMEN PLANIFIKAZIOA ETA ARRAZIONALIZAZIOA

Inbentario teknologikoa. Zaharkitzea. Finkapena. Zor teknikoa. Ondarearen modernizazioa. BifaktORIZAZIOA. SaaS bidez ordeztzea. Bilakaeraren ibilbide-orriak. Kostuen optimizazioa.

15. gaia: ESKARI TEKNOLOGIKOAREN KUDEAKETA

Betekizunak atzitzea. Lehenespena. Bideragarritasun teknikoa. Bideragarritasun ekonomikoa. Alorren arteko koordinazioa. Espektatiben kudeaketa. Eskariaren gobernantza. Jarraipen funtzionala.

16. gaia: IKTen eta FINOPSen AURREKONTU-KUDEAKETA

CAPEX eta OPEX. IKTen aurrekontua. FinOps. Erabili eta ordaindu. Jabegoaren kostua, guztira. Lizentziak eta harpidetzak. Cloud optimizazioa. Aurrekontu-jarraipena. IKTen finantza-adierazleak.

17. gaia: ERALDAKETA DIGITALA ETA ZERBITZUEN BIRDISEINUA

Eraldaketa digitala toki-erakundeetan. Administrazio-prozeduren birdiseinua. Sinplifikazio administratiboa. Muturretik muturrerako digitalizazioa. Kanal orotako zerbitzuak. Herriarren esperientzia. Irisgarritasun eta inklusio digitala. Izapideen automatizazioa. Gogobetetzea eta erabilera neurtzea. Antolaketan duen eraginaren ebaluazioa.

18. gaia: AUTOMATIZAZIO ADMINISTRATIBOA, LOW-CODEa eta RPA

Prozesu administratiboen automatizazioa. Administrazio-jarduketa automatizatua. RPA. Low-code eta no-code plataformak. Integrazioa espediente elektronikoarekin. Lan-fluxuak. Balidatze automatikoak. Automatizazioaren arriskuak. Giza gainbegiratzea. Prozesu automatizatuen kontrola eta auditoria.

19. gaia: ALDAKETAREN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA-HEDAPENA

Aldaketa teknologikoaren kudeaketa. Barne-komunikazioa. Erabiltzaileen prestakuntza. Aurkakotasunen kudeaketa. Tresna berriak hartzea. Udal-alorrei laguntzea. Lidergo digitala. Interes-taldeen kudeaketa. Hartze-mailaren neurketa. Ikasitako lezioak.

20. gaia: ONDARE APLIKAGARRIAREN MODERNIZAZIOA

Jarauntsitako aplikazioak. Inbentarioa eta diagnostikoa. Zaharkitze teknologikoa. Zor teknikoa. Birfaktorizazioa. Biringeniaritza. Migrazioa SaaSera. APIen bidezko esposizioa. Trantsizio-estrategiak. Zerbitzuaren jarraitutasuna.

21. gaia: MAKE-OR-BUY ESTRATEGIAK

Garapen propioa. Merkatuko konponbideak eskuratzea. Erabili eta ordaindu eta SaaS. Software librea. Administrazioen artean berrerabiltzea. Lankidetzat beste administrazio batzuekin. Jabegoaren kostua, guztira. Mendekotasun teknologikoaren arriskua. Barne-ahalmena. Jasangarritasuna eta mantentzeko gaitasuna.

22. gaia: KONTRATUAK GAINBEGIRATZEA ETA ZERBITZU-MAILAKO AKORDIOAK (SLA)

IKT kontratuak gainbegiratzea Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari eta, hala dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari jarraikiz. Kontratuaren arduraduna: Mugarrien jarraipena. Entregagaien kontrola. SLA (zerbitzu-mailako akordioak). Penalizazioak. Kontratuen gorabeheren kudeaketa. Hornitzaileen aginte-taula. Errendimendu adierazleak. Hornitzaileen arriskuen kudeaketa. Kontratuaren itxiera eta ebaluazioa.

23. gaia: HORNITZAILEEN SEGURTASUNA ETA HORNIDURA-KATEA

Hirugarrenen arriskua. Segurtasuna cloud-hornitzaileetan. Segurtasuna SaaS-en. Softwarearen hornidura-katea. Kode irekiko osagaiak. SBOM. Teknologia-mendekotasuna. Hornitzaileen auditoria. Kontratuen segurtasunari buruzko betekizunak Segurtasun Eskema Nazionalean (maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak arautua) ezarritakoaren arabera. Itzulgarritasun planak.

24. gaia: ZIBERSEGURTASUNAREN ARLOKO UDAL-GOBERNUA

Segurtasunaren arloko udal-politika Segurtasun Eskema Nazionalean (maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak arautua) ezarritakoaren arabera. Segurtasunaren antolaketa. Segurtasun-batzordea. Segurtasunaren arduraduna. Informazioaren arduraduna. Zerbitzuaren arduraduna. Koordinazioa CCN-CERTarekin. Kontzientziatzea. Segurtasun-adierazleak. Zibersegurtasunaren plan zuzentzailea.

25. gaia: SEGURTASUN ESKEMA NAZIONALAREN KUDEAKETA MAGERIT ETA PILAR BALIATUTA

Segurtasun Eskema Nazionalen (maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak arautua) ezarritako sistema-kategoriak. Arriskuen azterketa. MAGERIT. PILAR. Aktiboak identifikatzea. Mehatxuak eta zaurgarritasunak. Babesak. Hondar-arriskua. Tratamendu-plana. Adostasun-adierazpena eta -agiria.

26. gaia: IKT GORABEHERAK ETA KRISIAK KUDEATZEA

Gorabeheren sailkapena. Detekzioa eta analisia. Euspena. Deuseztapena. Berreskurapena. Barne-komunikazioa. Kanpo-komunikazioa. Datu pertsonalen arrakala 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Koordinazioa agintariekin. Gorabeheraren ondorengo txostena eta ikasitako lezioak.

27. gaia: NEGOZIOAREN JARRAITUTASUNA ETA BERRESKURATZEA

Udaleko zerbitzu kritikoak. Eraginaren analisia. RTO eta RPO. Backup-estrategiak. Hondamendien aurrean berreskuratzea. Eskuragarritasun handia. Kontingentzia-plana. Simulakroak. Krisien kudeaketa. Erresilientzia hobetzea.

28. gaia: IDENTITATEEN ETA SARBIDEEN KUDEAKETA

IAM. Active Directory eta LDAP. Single Sign-On. MFA. Zero Trust. Pribilegioen kudeaketa. Funtzioen bereizketa. Erabiltzaileen bizi-zikloa. Sarbideen auditoria. Identitate federatua.

29. gaia: DATUEN BULEGOA ETA DATUEN GOBERNANTZA

Datuen bulegoa. Datuen estrategia. Rolak eta ardurak. Data owner. Data steward. Zaintzaile teknikoa. Datuen katalogoa. Datu irekiak eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzea, azaroaren 16ko 37/2007 Legean eta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera. Datuen hiztegia. Datu nagusiak. Erabilera-kasuak lehenestea.

30. gaia: ADIMEN ARTIFIZIALARI BURUZKO UDAL ESTRATEGIA

Adimen artifizialari buruzko estrategia. Udaleko erabilera-kasuak. Ekimenak lehenestea. Behar diren gaitasunak. Adimen artifizialarekin erabiltzeko datuak. Adimen artifizialaren arriskuak ekainaren 13ko 2024/1689 (EB) Erregelamenduan (AI Act) ezarritakoaren arabera. Giza gainbegiratzea. Gardentasuna. Ereduen gobernantza. Eragina ebaluatzea.

31. gaia: GOBERNANTZA ALGORITMIKOA ETA AL ACTa BETETZEA

2024/1689 (EB) Erregelamendua, ekainaren 13koa, Adimen artifizialaren arloko arau harmonizatuak ezartzen dituen (AI Act). Arriskuen sailkapena. Debekatutako sistemak. Arrisku handiko sistemak. Gardentasun algoritmikoa. Giza gainbegiratzea. Azalgarritasuna. Alborapenak eta bereizketa. Trazabilitatea. Auditoria algoritmikoa. Adimen artifiziala kontratatzea. Eragin algoritmikoa ebaluatzea.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e